

azpeitianzer?

udal aldizkaria

148. zenbakia
2012ko ekaina



guztion esku dago!



*Ingurugiro Etxea
Museoak 25.
urteurrena ospatu du*



*Ainhoa Beristain
"Azpeitia euskararen
bihotza izatea nahi
dugu"*

ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Ingurugiro Etxea Museoa
- 6 Elkarrizketa
- 8 Hondakinen kudeaketa
- 10 Azpeitian zer egingo da?
- 16 Motxak
- 18 Agenda
- 20 Udako ikastaroak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zaborategia	943 15 18 75
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 5, 13, 19, 22, 25 eta 30.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 11, 16, 17 eta 28.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 1, 4, 9, 10, 12, 15, 18, 23, 24, 27 eta 29.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Ekainaren 6, 8, 14 eta 20.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 2, 3, 7, 21 eta 26.

Udal zerbitzuak

Azpeitia Lantzen



Azpeitia Lantzen Azpeitiko Udaleko baltzua da eta bere helburua, etxebizitza tasatuen eta babestuen kudeaketa da.

Horrela, Azpeitia Lantzen baltzuaren zereginetan aurkitzen diren eginbeharrak honako hauek dira:

- Etxebizitza tasatuen eta **Babes Ofizialeko etxebizitzaren promozioak** eskaintzen ditu.
- **BIZIGUNE** programari buruzko informazioa zabaltzen du, programa honen bidez, bigarren etxebizitza bat hutsik duenak alokairuan ezar dezake
- **ETXEBIDE**-n izena eman ahal izateko informazioa eskaini.

• **Non:**
Sindikatu Zaharra. Bigarren solairuan.

• **Ordutegia:**
Asteleheneretik ostiralera
08:00etatik 14:30era

• **Telefonoa:**
943 15 71 83

Udal erabakiak

Azpeitiko Udalak ekainaren 5ean egin zuen azken Udalbatza eta bertan hartu ziren erabakiak ondorengo hauek izan ziren:

- 1.- Azpeitia Lantzen S.Aren dimititu duen kontseilu kide baten aldaketa aho batez onartu zuten Bildu, EA Jeta Hamaikabat alderdiek.
- 2.- Ibai-Eder kalea 2-5 B etxebizitza Udal Etxebizitza Tasatu moduan kalifikatzea aho batez onartu zen.
- 3.- Kale-plazetan mahaitxoak eta eserlekuak jarri eta erabiltzea arautuko duen udal-ordenantza berria osatzea aho batez onartu zen.
- 4.- Azpeitiko Udalaren eta Uztarria komunikazio taldearen arteko hitzarmena onartzea Bildu eta Hamaikabat alderdien aldeko botoei esker onartu zen. EAJ taldeak aurka bozkatu zuen.
- 5.- Tutoretzapeko etxebizitzaren programaren baitan funtzionamendu arauak aho batez onartu ziren.
- 6.- Bizikidetzan eta giza eskubideetan esku-hartzeari buruz Azpeitia Udalaren plana aho batez onartu zuten.
- 7.- Genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktimak diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko udal-protokoloa aho batez onartu zen.
- 8.- Galdera eta erreguak.



25 urte iraunkortasunean hezten

Bilerak amaitu ditu Udal Gobernuak eta orain proposamenak aurrekontuetan txertatzea aztertzen ari da

bisitariak ingurumena babesteko ezagupenak, interesa eta beharrezko sentsibilitatea lortzea jolasen bitartez. Horixe zen Umeen Museoaren, gaur egun Ingurugiro Etxea Museoaren, helburu nagusia 1987ko ekainaren 5ean inauguratu zenean. Dagoeneko 25 urte igaro dira eta bitarte honetan hainbat aldaketa jasan ditu.

Horrela, 1998-1999 urteen artean erabat aldatu zen, bai eduki aldetik, bai ikuspegi aldetik ere. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Azpeitiko Udalarekin lankidetzan, museoaren historiako garai berri bati

ekin zion, Ingurugiro Etxea museoak sortuz, ingurumen ikuspegi berrietara egokituz, eta horrela, euskaldunei orokorrean eta bereziki eskoletako neska-mutilei ingurumena ezagutu eta honen arazoez jabetzen lagunduko zien espazio bat sortuz.

“25 urtetan eragin handia izan du museoak 300.000 pertsona igaro dira bertatik”

“Aldaketa handia jasan zuen, Umeen Museoak izatetik Ingurumen Etxea Museoak izatera igaro zen eta lan

egiteko modua ere aldatu egin zen. Hasieran irakasleekin egiten genuen lana eta aldatetaren ondoren, gu hezitzaile moduan hasi ginen edukiak garatzen. Horrela, ingurumenaren arazoak, baliabidea eta irtenbide desberdinak erakusten eta eskaintzen hasi ginen museoak ikustera etortzen ziren haurrei.”, agertu dute Ingurugiro Etxea Museoko hezitzaile diren Ana Arrutik, Edurne Agirrek eta Itziar Unanuek.

Bederatzi urteko ibilbidea egin ondoren edukien eta erakusketako elementuen aldatetaren beharra nabaritu zen, zaharkituta gelditu zirelako, eta era

berean, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiarako 2002-2020 helburuetara egokitzeko premia ere nabaritu zelako. Horregatik guztiagatik 2007ko urte bukaeran museoaren azken birmoldatze-lanak egin ziren.

“25 urte hauetan lan asko egin da poliki-poliki, ia 300.000 haur eta gazte igaro dira hemendik eta kontzientziazio lanak egiten saiatu gara. Herri mailan ere asko sendotu ditugu ikastetxeekiko harremana, 2003 urtean Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartzen hasi ginenetik. Aurrera begira, berriz, lanean jarraituko dugu tinko, ingurumenaren eta hondakinen gaia puri-purian baitago gaur egun.”, adierazi dute.



Ospakizunak

Ingurugiro Etxea Museoaren 25. urteurrena ekainaren 6an zen eta egun berezia ospatzeko, ekitaldi bereziz bateriko eguna antolatu zen. Azpeitiko eta Azkoitiko udaletako zinegotzi eta teknikariak, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak zein ikastetxe eta museo desberdinetako arduradunak izan ziren bertan.

Eneko Etxeberria alkateak eta Jose Mari Bastida alkate ohiak eman zieten hasiera ekitaldiari eta jarraian, Ingurugiro Etxea Museoaren bisita gidatua egiteko aukera izan zuten bertaratuek museoeko hezitzaileen eskutik.

Ondoren, EHU-ko Ekonomia Aplikatuko irakaslea den Roberto Bermejo Gomez de Segurak Petrolio krisia, finantza krisia izeneko hitzaldia eskaini zuen.

Ekainaren 9an berriz, museoeko lorategian, azken 25 urteetako bilakaera ikusteko material eta argazki erakusketa txiki bat izan zen ikusgai eta era berean, museoak bizi izan dituen hiru faseetan egon diren umeentzako jolasak berriro gogoratzeko aukera izan zen.



elkarriketa

Ainhoa Beristain

Euskara eta Auzoak batzordeetako zinegotzia



“Azpeitia
euskararen
bihotza bihurtzea
da gure apustua”

Euskara eta Auzoak arloetako ardura dagokio Ainhoa Beristain zinegotziari. Legealdi honetan zehar Udal Gobernu taldeak bi sailetarako dituzten irizpide eta helburu nagusiak azaldu ditu

Nola baloratuko zenuke euskararen egoera Azpeitiko herrian?

Azpeitia euskararen bihotza bihurtzea da gure apustua. Azpeitia, seguruenik, Euskal Herriko herri euskaldunenetakoa da eta gure ustetan, Azpeitia euskararen erreferente nagusienetakoa bilakatu behar dugu.

Horretarako, instituzioetatik apustu serio eta garbia egin behar dugu euskal kulturaren alde. Azken finean, herriko hainbat eragile lanean ari dira eta guk, herritik sortutako eragile horiei behin eta berriz saiaturako gara laguntzen. Egia da egungo egoera ekonomikoak ez duela laguntzen, une gogorrek dira alde horretatik, baina formula berrien bidez, kolaborazio bidez eta laguntza zuzen bidez euskal eragileei gure babesa eta laguntza eskainiko diegu beti. Izan ere,

euskara, euskal kultura, gure ondarea lantzen jarraitu behar dugu. Euskara eta euskal kultura euskaldun egiten gaituztenak dira eta zerbait izan nahi badugu, beharrezkoa da euskara kontutan hartzea. Beraz, hizkuntza guretzat apustu estrategikoa da eta horrela jarraituko du.

Eta zeintzuk izango dira emango dituzuen pausoak?

Emango ditugun pausoak eragileekin, batez ere, hitzarmen bidez izango dira. Azken urteetan utzita egon den gaia izan da hitzarmenak lotzea, horregatik, herritik sortutako eragileekin kolaborazio hitzarmenak sinatzea nahi ditugu, aurrera begira, denok batera lanean jarraitzeko eta aurrez esandako helburu estrategikoak betetzeko.

Udalak hitanoa bultzatzeko kanpainan indar handiak jarri ditu.

Hitanoa gehien erabili izan den herria da Azpeitia, eta Udalaren ustetan oso garrantzitsua zen gazteen artean sustatzea. Aurreko legegintzalditik datorren nahia da hitanoa bultzatu, hedatu, sustatu eta batez ere, egoki erabiltzea. Horregatik, hitanoa bultzatzeko programa berezia jarri zen martxan iaz. Horrekin batera, enpresetan euskararen presentzia indartzeko eta etorkinentzat, haurrak batez ere, euskalduntze programak nabarmendu nahiko nituzke.

Bestalde, parte-hartzeari garrantzi berezia ematen ari zarete eta horretarako Udal Ordenantza ere sortu duzue.



Parte-hartze araudia guretzat oso tresna garrantzitsua da, azken finean, parte-hartzea udaleko kudeaketako DNAn txertatzen duelako. Aurretik dauden hainbat foru, mahai eta iritzi trukaketa tresna arautzen dira, eta bestetik, tresna berriak diseinatzen dira. Horretaz gain, demokrazia zuzenean egiten diren ekarpenak oso aberatsa dela iruditzen zaigu, eta ordenantza hau bere edukiarengatik, oso aurrerakoa dela. Gure herritarren ekarpenen eta dinamismoak horrelako ordenantza izatea posible edukitzeko baldintzak egokiak biltzen dituela ikusten dugu.

Zer nabarmenduko zenuke ordenantzatik?

Zerbait nabarmentzeagatik, niri dagokidanez, bereziki auzoak.. Denon Artean prozesua aurkeztu genuenean, auzo guztiak bisitatu genituen, herritarrekin hitz egiteko. Azpeitiko herri-gunetik urrunduta dauden

auzoek behar ugari dituzte eta askotan ez dituzte bide egoki edo zuzenik dituzten kexa, proposamen, eskaera edota iritziak Udalera bideratzeko ordezkaritza egokirik. Koordinazioa falta zaie. Bizia eman eta indartzeko, eta dituzten beharrei irtenbidea emateko asmoz, gure proposamena auzotarrak organizatuta egotea izan da. Horretarako, auzo-alkatearen irudia planteatu dugu, auzotarrek beraiek zuzenean aukeratuko dutena eta bere eginbeharra, Udalarekin harreman zuzena izatea izango da, dituzten kezkak agertzeko. Azken finean, auzoen presentzia Udal barnean bermatuko lukeelako. Modu honetan, dituzten kezkak zuzenean eramango dituzte udaletxera. Horregatik, martxan jarri berri dugun prozesuan, auzoak antolatzeke aukera ematen zaie, askoz gaitasun gehiago izango baitute Udaleko erabakietan. Beraz, auzoek beraiek dituzten nahiak lortzeko edota dituzten beharrei irtenbidea emateko aukera

izango dute, harreman zuzena izango dutelako eta harreman hori, legalki errekonozituta egongo delako.

Denon Artean prozesuaren baitan, auzo guztiarekin biltzeko aukera izan duzue. Zein izango da Udalaren helburua Azpeitiko auzoekiko?

Auzotarrekin bilera asko egin ditugu eta eskaera asko jaso ditugu, bai Nuarbe, Aratz Errekan, Urrestillan... Auzotarrek bilera hauetan izan duten partaidetza oso altua izan da eta agertu dituzten kezka eta ekarpenak, oso beharrezkoak eta zentzudunak dira auzoentzat. Gure aldetik, saiakera egin dugu ahal den neurrian behar dutena eman edo egiteko. Saiakera hau, batez ere, aurtengo aurrekontuetan egin dugu baina bestelako kezkak, estrategia baten barruan sartu ditugu, ea hurrengo urteetan garatu ahal izateko. Aurrera begira, auzoek dituzten behar denei aterabide egokia ematea baita Udalaren asmoa.

erreportajea

Inoiz baino ardura handiagoz jokatzeari dagokigu



Guk sortzen dugun eta pilatzen den hondakin guztia ahalik eta hobekien kudeatu nahi du Udalak eta horretarako sistema eraginkorrena erabakitzeko prozesua jarriko du abian

Guk sortzen ditugu hondakinak eta honen aurrean, ez dago miraririk, ahalik eta hobekien kudeatzea sortutako hondakin guztia, besterik ez. Horregatik, ahalik eta modu zentzudunenean kudeatu behar dugu.


Azpeitiar bakoitzak urtean 400 kilogramo hondakin sortzen ditu. Hondakin kopuru handiena nahasia da, hau da, organikoa, plastikoa, papera, ontziak... elkarrekin nahastuta.




ZERGATIK GERTATZEN DA HORI?

KONTSUMO eredu linealean ari garelako

Zaborra pilatu



Birziklatze tasa
Adibideak



9.229.980 Kg

Zaborteaira



323.235 Kg



Organikoa

1.490.038 Kg



Papera

443.530 Kg



Ontzi arinak

990.483 Kg



Bera

UDAL GOBERNUAREN ESKAERA



azpeitiko Lapatx zabortegia 1988. urtean hasi zen funtzionatzen, eta gaur egun Azpeitiko zaborrez gainera, Aizarnazabal, Azkoitia, Zestoa, Beizama, Bidegoian, Errezil, Elgoibar, Eibar, Soraluze, Mutriku, Deba, Ermua eta Donostialdeko zaborrak jasotzen ditu, besteak beste. Azpeitiko Udal Gobernuak behin baino gehiagotan agertu da Lapatx zabortegia ixtearen alde.

2011ko urriaren 4ean egindako Udaltzatzen Lapatx zabortegia adostutako epea ixteko eskatu zuen. "Azpeitiko Udaltzatzen Lapatx zabortegia ixteko hartutako konpromisoak errespetatzea, adostutako epe horretan ixtea, eta inola ere zabortegiaren eperik ez luzatzeko eskatzen die eragile guztiei", agertu zuten mozio bidez.



Horrez gain, "hondakinen prebentzioa, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzeko neurriak hartzen jarraitzeko" deialdia luzatu zien Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitateari, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Azpeitiko Udalak ere bide horretan "gogoz" aurrera egiteko konpromisoa hartu zuelarik. Udalak "Europako zuzentarauak eta lege berriak ezarritako hierarkia beteko" duela erabaki zuen Udaltzat; eta gainontzeko erakundeei ere hala egiteko eskatu ziela ager tu zuen: "Udalak, hiri hondakinen kudeaketan eskumenak dituzten beste erakundeei ere horrela egitea eskatzen die".

Prebentzio, berrerabilpen eta birziklatzea sustatzeko neurriak hartzen jarraitzeko konpromisoa hartu zuen Udaltzat aho batez.

Are gehiago, Europa Parlamentuak birzikla daitezkeen hondakinak errausteari atea itxi nahi dio. Maiatza bukaeran egindako bozketan, Parlamentuak zabortegeiak kentzeko legea aldatzeko eskaera egin zion Europako Batzordeari eta, 2020tik aurrera, birzikla daitezkeen gaiak erraustea galarazteko. Ingurumenean kaltea egin dezaketen jarduerak ez direla diruz lagundu behar ebatzi eta 2020rako birziklatze helburuak berriz aztertzeko eskatu zuen.

Izan ere, Europako Parlamentuaren ustetan, produktuen diseinua hobeto egiteak onura egiten die ekoizleei eta kontsumitzaileei eta horregatik, energiarekin zerikusirik ez duten produktuen diseinu ekologikoa zabaltzeko eskatu dio Europako Batzordeari, produktuen iraupena handitzea, berrerabiltzea, konpontzea eta birziklatzea posible egiteko. Aurkeztutako txostenean jasutzen denez, produktuen etiketek kontsumitzaileei informazioa eman behar dietela natur baliabideen erabilari buruz eta ingurumen eraginari buruz.

Europako Parlamentuak
2020tik aurrera birzikla
daitezkeen gaiak erraustea
galarazteko eskaera luzatu
dio Europako Batzordeari .



ZER EGITEN ARI GARA UNE HONETAN ZABORRAREKIN?

Zaborteaira eraman

Ondorio kaltegarriak:

- CO2 isurketa handiak
- Lixibiatuak
- Arratoiak
- Kiratsa
- Biogas isurketa




ZER AUKERA DITUGU?

ERRAUSTU

Ondorio kaltegarria:

- Isurketa toxikoak (12-20 Km.)
- Ingurumen eta osasun kalteak
- Oso garestia
- Errauts toxikoak (zabortegi bereziak)

ZERO ZABOR POLITIKA



ZERO ZABOR

BIRZIKLATU


- A.- Murriztu
- B.- Birziklatu

Hondakinak gutxitzea

- Kontsumo arduratsua.
- Gehiegizko bildukinen aurkako neurriak.
- Berrerabilpena bultzatu.
- Teknologia garbiak indartu.

Birziklatzea

Hondakinak ez nahastean datza konponbidea



ETA AZPEITIAN ZE PROPOSATZEN DU UDAL GOBERNUAK?



Guztiaren erdian azpeitiarrak gaude, eginbeharrekoa pertsonak egingo dugu edo egitea utziko dugu. Guk herritarrak arazoa konpontzeko erdian jarri nahi ditugu herritarrak. Azpeitiarrak gabe ez da egingo.

1. Gaia testuinguruan jartzea. Gai hau ez da gai politiko bat gai tekniko bat baizik. Herrialde Katalanetara begiratu besterik ez dago, hondakinen eztabaida ez da politikoa, ingurumenari lotua dago eta alderdi guztietako alkateek baliatu dute Atez Atekoa. Gaia politizatu nahi da baina gaia teknikoa da.

2. Eta erabakia teknikoa da, guztiz teknikoa: gure hondakinekin bi aukera ditugu:

- A) Erre, hau da, intzineratu.
- B) Birziklatu.

Ze gertatzen da? Intzineratzea birziklatzearen aurka dagoela. Intzineradorak janaria behar du eta hori, ahalik eta hondakin nahasi gehien da. Ondorioz, Udal gobernuak ez du errauskailurik nahi, ez hemen eta ez inon. Horrelako kalterik sortzea ez dugu nahi inon. Gurea konpontzeko, hau da, zabor tegia ixteko, bestea izorratu beharra izatea xantaia da.

3. Legeak eta Europako zuzentarauak esandakoa bete nahi dugu.

4. Lapatx ixtea exijitzen dugu. Udalbatzak 2011ko urriaren 4ean aho batez hartutako erabakia betetzea.

5. Ekonomikoki balio handia duten lehengaiak ezin ditugu zabor kutsatzaille bihurtu eta birziklatzeko eta berrerabilpen industria bultzatzeko behar dugu, lanpostuak sortuz.

6. Azpeitiko herriak urteak daramatza 5. edukiontziazen sistemarekin. Emandako urratsak oso handiak dira baina hobetu egin behar dugu. Gipuzkoako hainbat herritan atez ateko bilketa sistemarekin gaikako bilketa tasa ikusgarriak lortu dira. Ondorioz, Azpeitian dugun sistema hobetu behar dugu eta Udal Gobernuak, oinarritzko lau irizpide planteatzen ditu:

- A.- Patxada, sentsibilizazioa eta herritarren kontzientziazioa, bai prebentzioan eta bai birziklapenean.
- B.- Birziklapen eta gaika jasotzeko tasak hobetu behar ditugu. Ahal den gehien hobetu behar dugu.
- C.- Birziklapena errespetuz egin behar dugu. Batak bestearekiko errespetuarekin jokatu behar dugu, denok zaindu eta errespetatu behar dugu herria.
- D.- Herritarrek erabaki behar dute, konponbidearen erdian kokatu behar dira. Herritarrak herritarrik gabe ezin da ezer egin, ezer aldatu. Ondorioz, bai Udal barnean, alderdien artean, eztabaidatu eta adosten saiatu beharko gara. Eta era berean, herritarren ekarpenak eta iritzia bermatuko duten prozesu bat abian jarri beharko da.

Prozesu hau abian jarri da dagoeneko. Maiatzeko bost egunetan beste hainbat bilera antolatu zituen Udalak eta herritarren aldetik oso harrera ona izan zuen, guztira, 290 pertsona inguruk hartu zuten parte.

OHARRAK

5. edukiontzia erabilera zuzenarentzat



Margo pote bat organikoaren edukiontzira bota izana salatu dute Udalak eta Mankomunitateak

Orain astebete inguru, Urola Erdiko Mankomunitate Zerbitzuak Azpeitia eta Azkoitia herrietako organikoa jaso zuen, baina ontzi batean margo pote bat agertu zen, bildutako organiko guztia kutsatuz. Ondorioz, bi herrietan jasotako organikoa zabortegira bota behar izan zen. Mankomunitateko zein Udaleko arduradunek gertaera hau gogor salatu nahi dute eta herritarrei eskatu nahi zaie edukiontzien erabilera zuzena egiteko. Gainera, organikoaren kasuan, giltza beharrezkoa da ontzia irekitzeko, beraz, are larriagoa da gertatutakoa.

Organiko ontziaren giltza galduz gero, berria ordaindu egin beharko da



Azpeitia zein Azkoitiko herritar ugari birziklatzearen aldeko esfortzua eta borondatea agertzen ari da baina pertsona batek hori zapuztu dezakeela ikusirik, Urola Erdiko Mankomunitateak erabaki bat hartu du. Horrela, giltza galdu eta berria eskatuz gero, giltza berri hori ordaindu egin beharko da. Neurri honen bidez, organikoaren ontziaren eta bera erabiltzeko giltzaren erabilpen arduratsua lortu nahi da.

Txolarte egun jendetsua



aztegik Txolarte Eguna ospatu zuen maiatzaren 12an Azpeitian. Jende ugari bildu zen herriko kaleetan festaz gozatzeko, Gipuzkoako 400 lagun inguru, hain zuzen ere, Donostia, Azkoitia edota Arrasate herrietatik etorri zirelarik. Ekitaldiei hasiera emateko, suzuria jaurti zuten udaletzeko balkoitik Iban Goenaga Txolarteko kideak eta Esther Bastida begiraleak eta Eneko Etxeberria alkatea bertaratutakoak agurtu eta "egiten duten lanagatik eskerrak eman nahi dizkizuet. Ondo pasal" agertu zuen. Jarraian, antzerkia, kalejira, bazkaria eta DJ festa izan zituzten.

Etorkizuneko futbola ikusgai



etorkizuneko futboleko izarrak izango direnak gertutik ikusteko aukera izango dugu azpeitiarrok. Iraurgi Cup txapelketa jokatuk oda ekainaren 15, 16 eta 17an eta Gipuzkoako, Espainiak ozen Frantziako taldeak lehiatzera etorriko dira. Guztira, 32 talde izango dira, besteak beste, FC Barcelona, Sevilla, Malaga, Atletico de Madrid, Valentzia edota Girondins de Burdeos bezalako taldeen partaidetzarekin. Txapelketari esker, Azpeitiko herriak 600 bisitari baino gehiago jasoko ditu hiru egunetan zehar, herriko turismoarentzat, etab eraz, ekonomiarentzat, duen garrantziarekin.

Lagun Onaken eguna



2 011-2012 denboraldia amaituta, ikasturtean zehar egindako lan guztia goraipatu eta ospatzeko txanda da eta horretarako, Lagun Onak Futbol Taldeak egun berezia prestatu du ekainaren 20rako. Goizetik hasita, futbol partidak jokatuko dituzte talde desberdinek, eguerdian, Lagun Onak eta Eibarreko beteren arteko lehia izango delarik. Haurrentzako puzzleak ere ezarriko dira eta Errealeko hainbat jokalarik bertan izango dira haur eta gazteei sinadurak emateko. Bazkaria Berdura Plazan egingo da eta jarraian, jokalarik nabarmenei sariak banatuko zaizkie. Egunarekin amaitzeko, jolasak eta kontzertuak izango dira.

Udala, Aranbururen agurrean



mikel Aranburu futbolari azpeitiarrak bere azken partida jolastu zuen Errealekin maiatzaren 12an Valenciaren aurka. Hamalau urteko ibilbidea egin eta gero, errealeko taldeko kapitaina agurtzeko ekitaldia prestatu zuen taldeak eta Azpeitiko Udalak Aranbururekin egon nahi izan zuen une hunkigarri horretan. Honela, Udaleko ordezkaria Anoetan jokatu zuen Erreala eta Valenciaren arteko partidara joan zen eta ondoren, Eneko Etxeberria alkateak orogarri bat eman zion Aranbururi futbolari bezala izandako ibilbidea nabarmendu eta txalotzeko asmoz.

agenda

EKAINA

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	



Ekainaren 9tik 20ra

KARTEL ERAKUSKETA

ANTZERKI TOPAKETA 2012

Astelehenetik ostiralera
18:00etatik 20:00etara
Larunbata eta igandetan
12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

9, larunbata

HASPARNE-JUDO KLUB KIMURA/JUDO TOPAKETA

Hasiera: 11:00etan
Tokia: Igerilekua

KRISTORENTZAT TITIRITEROAK TXONTXONGILO, PAILAZOAK

Ordua: 10:00etatik 14:00etara
Arratsalde 16:00etatik 20:00etara

ELIZ KALEKO KORPUTZ JAIK

16:00 XXV Erretz-txapelketa,
Mendizale M.B. tabernan

III. ONGINTZAKO FUTBOL-7 (Chile Bright)

Tokia: kirolguneko belar artifizialeko zelaia
Adina: 15 urtetik gorakoentzat

SOLASALDIA ZABORREN KUDEAKETA SANAGUSTIN KULTURGUNEA

Ordua: 12:00

10, igandea

XANJUANDEGIKO V. ESKOLARTEKO KROSA.

11:30 III. Umeen eskolar teko krosa

ENPARAN KALEKO KORPUTZ JAIK

11:30 Itxaferuak zir-ti-zarta. Txistulariekin kalejira
12:00 Herri Meza. Frantziskanetako elizan
13:00 Luntxa Basa-Zabal Elkar tean
14:00 Lagun arteko bazkaria Baigeran

III. ONGINTZAKO FUTBOL-7 (Chile Bright)

Tokia: kirolguneko belar artifizialeko zelaia
Adina: 15 urtetik gorakoentzat

URREZKO AIZKOLARIEN BANAKAKO TXAPEKETA

Ordua: 12:00

Lekua: Izarraitz frontoia

SANAGUSTIN KULTURGUNEA

NOMADAK TX- MUSIKA PROIEKZIOA IKUSKIZUNA

Ordua: 18:30

11, astelehena

SANAGUSTIN KULTURGUNEA GFAREN AURKEZPEN IREKIA

Ordua: 19:00-21:00

12, asteartea

BAIGERAKO EKINTZAK

Adinekoen trafiko istripuen inguruan hitzaldia
Ordua: 16:30
Lekua: Baigera aretoa

SANAGUSTIN KULTURGUNEA MAHAI INGURUA: SOZIOEKONOMIAZ EZKER ABERTZALEAK Antolatuta

Ordua: 19:00

13, asteazkena

EMAKUME TXOKOAK ANTOLATUTA:

Hitzaldia: metodo antokontzeptiboak
eta sexu aukerak
Hizlaria: Olatz Berastegi
Ordua: 19:30

SANAGUSTIN KULTURGUNEA HITZALDIA: ZABORREN ETORKIZUNA

"AZPEITIKO ZERO ZABOR"ek antolatuta
Ordua: 19:00

14, osteguna

BAIGERAKO EKINTZAK ORIO-AGINAGA egun pasa

Irterera: 08:30
Lekua: Plaza Nagusia

ELIZ KALEKO KORPUTZ JAIK

18:00 Jaien hasera: itxaferoen zir-ti-zarta eta
JUAN ANTXIETA musika-eskolako musikarien
kalejira. Ondoren buruhaundiak
19:30 Meza parrokiari, kaleko hildakoen alde.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA ITSASI UMEEN DANTZA JAIALDIA

Ordua: 19:00-20:00

15, ostirala

ELIZ KALEKO KORPUTZ JAIK

18:00 Kallian gora, kallian behera, JUAN

ANTXIETA musika eskolako musikariak.
Ondoren buruhaundiak. 19:30 "Kitarra
poteoa" kalean zehar. 22:30 Haritz eta
Montte trikitilariekin ERROMERIA

IRAURGI CUP FUTBOL TXAPELKETA (Iraurgi Cup)

Lekua: Azpeitiko futbol zelaietan
Ordua: goiz/arratsalde

16, larunbata

IRAURGI CUP FUTBOL TXAPELKETA (Iraurgi Cup)

Lekua: Azpeitiko futbol zelaietan
Ordua: goiz/arratsalde

ELIZ KALEKO KORPUTZ JAIK

13:00 Itsasi dantza taldea kalean zehar
19:30 Nuarbeko Martinekin txistu kalejira
20:30 Baigera tabernan lagunarteko afaria
23:00 Gabezin taldearen emanaldia
24:00 Zozketa kalean bertan

SAN JUANAK- URRESTILLA

17:00 Herri krosa

GAZTETXEKO FUTBITO FINALA

Ordua: 17:00
Tokia: Plaza Nagusia

KARATE JAIALDIA

Ordua: 16:00-18:00etara
Tokia: kiroldegia
URRESTILLAKO XI. SAN JUAN HERRI KROSA
Ordua: Eskolarrak 17:15ean eta beste katego-
riak 18:00etan. Kategoriak: benjamin, albein,
infantil, kadete, jubenil, senior eta beteteranoak
Tokia Urrestilla

KONTZERTUA POTATO+ NICHE FLOW SANAGUSTIN KULTURGUNEA

Ordua: 23:00

17, igandea

LAGUN ONAK MB Gaztetxoentzako BTT irteera SAN JUANAK- URRESTILLA JUBILATUEN EGUNA

12:00 Meza Nagusia
13:00 Metal Boskotea
14:00 Jubilatuen bazkaria
17:30 Herri kirol erakustaldia



ASTEBURU MUSIKALA 2012 METAL BOSKOTEAREN kontzertua

Lekua: Urrestilla Auzoan

Ordua: 13:00

IRAURGI CUP FUTBOL TXAPELKETA (Iraurgi Cup)

Lekua: Azpeitiko futbol zelaietan

Ordua: goiz/arratsaldez

20, asteazkena

ASTEBURU MUSIKALA 2012 JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLAKO

Amaierako jaialdia

Lekua: Soreasu Antzokian

Ordua: 19:30

ARGIA DOKUMENTALA. " NIRE BIZI OSOA ESPETXEAN" Sanagustin Kulturgunean

Ordua: 21:00

21etik 30era

ARTE ETA DISEINO

Ikasleak urtean zehar egindako lanen erakusketa

Astelehenetik ostiralera

18:00etatik 20:00etara

Larunbata eta igandetan

12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

22, ostirala

SAN JUANAK-URRESTILLA SORGIN GABA

19:00 Sorgin poteoa trikitilari

eta bertsolariekin

21:00 Gazte afaria

22:00 Kontzertuak: DEVIZIO+

ALDEXOK+ GOZATEGI

22:15 Pilota partiduak

URRESTILLAKO PILOTA PARTIDUAK

Ordua: 22:15

Tokia: Urrestillako Txikuri frontoian

23, larunbata

OÑATZ-KO SAN JUANAK

Gauean lagun eta auzokoan afaria bertako tabernan, ondoren Juanito eta Xanti trikitilari eta bertsolari saioa

ASTEBURU MUSIKALA 2012

SAN JUAN SU EKITALDIA

Musika, kantak, dantza eta antzerkia

Plaza Nagusian

Ordua: 22:00

Partaideak: Juan Antxieta musika eskola, Alaitz Olaizola, Julian Barrenetxea Abesbata, Musika Banda, Dantza Sueltoke taldea eta Saloi Dantzetako bikotea.

SAN JUANAK- URRESTILLA

SAN JUAN BEZPERA

20:00 Triki poteo herrikoia

1:00 Txupinazoa, Pregona, Agurra eta segidan Herri Afaria

23:00 San Juan Zuhaitza sartzea

00:00 San Juan sua piztuiko da

00:30 Erromeria: MARIANI-

TOZ BLAI+ BESTEPIE

24, igandea

OÑATZ-KO SANJUANAK JAIAK

11:30etan meza, ondoren hamarretakoa

trikitilariak alaituz. Ostean herrikirolak.

Bazkal ondoren Xanti eta Juanito

Trikitilariekin erromeria

SAN JUANAK- URRESTILLA

SAN JUAN EGUNA

09:30 Dultzaineroakin diana

12:00 Meza Nagusia

12:45 Azpeitiko Udal Musika Banda

13:00 Erraldoiak eta buruhaundiak

16:30 Zezen Txiki eta pottokak

18:30 Zaldi proba

22:30 Sahatsa dantza taldearen ikuskizuna

ASTEBURU MUSIKALA 2012

UDAL MUSIKA BANDAREN

KONTZERTUA

Lekua: Urrestilla Auzoan

Ordua: 12: 45

25, astelehena

SAN JUANAK- URRESTILLA

SAN JUAN GAZTE

12:30 Sagardo dastaketa

15:30 Mus txapelketa

17:00 Irrien lagunak

20:00 Triki poteoa eta luntxa

23:00 Kontzertuak LAKET

26, asteartea

SAN JUANAK-URRESTILLA

SAN JUAN TXIKI

16:00 Puzgarriak eta zezen mekanikoa

17:30 Haurrentzat merienda

18:00 Txiki Biran

23:00 Zuhaitzaren entierroa

GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA:

Herriko haur eta nerabeen

antzerki emanaldia

Non : Sanagustin kulturgunean

Ordua: 18:30

27, asteazkena

EMAKUME TXOKOAK ANTOLATUA:

Hitzaldia: Transexualitate

eta transgeneroa

Hizlaria: Ana Txurruka

Ordua: 19:30

28, osteguna

ZEZEN BATZORDEAK

ANTOLATURIK:

2012 ZEZENKETAKO

KARTELAREN AURKEZPENA

Ordua: 13:00

Lekua: Sanagustin kulturgunean

GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA:

Udal udaleku irekietako guraso bilera

Non : Sindikatu Zaharra

Ordua: 19:00

30, larunbata

DAMASOKO FESTAK

11:00 Txupinazoa

11:15 Bizikleta proba

11:45 Txikien VII. Lasterketa

12:00 Haundien VII. Lasterketa

12:15 Sari banaketa

12:30 Poteoa

16:00 Pintura lehiaketa

16:30 Merienda

17:00 Lokotx biltzea, sokatira, aulki

dantza eta globo leherketa

18:30 Buruhaundiak

19:00 Triki poteoa

20:30 Umeen afaria

21:30 Helduen afaria

23:00 Musika

LAGUN ONAK MB asteburua

-OKABEN ASTEBURUA (Gaztetxoak)

-GRAN FATXAKO ZEHARKALDIA

EHUko udako ikastaroa eskainiko du Burdinbidearen Euskal Museoaren Fundazioak

Burdinbidea, Iraunkortasuna eta Lurralde

Antolamendua: gaur eguneko egoera eta
etorkizuneko ikuspegiak testuinguru globalizatu
batean

**Azpeitiko Arrupe
hotelean izango da
ekainaren 27tik 29ra**

**Fundazioak matrikula
ordaintzeko erraztasunak
emango dizkie interesatuei**

**Informazio gehiagorako,
comunicacion@bemfundazioa.org
helbidera idatzi**

